

**TXOSTENA** **MEMORIA**  
**2013**



**elkar-lan**  
S . C O O P .

---

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS





## Aurkibidea

---

- 5 I. Organo sozialak
- 9 II. Lehendakariaren agurra
- 13 III. Informazioa eta zabalkundea
- 29 IV. Prestakuntza
- 33 V. Kooperatiba-aholkularitza eta eraketa
- 37 VI. Tutoretza / Jarraipena
- 39 VII. 2013an ELKAR-LAN, S. COOP. ekin lotura izan duten Kooperatiba berrien zerrenda
- 89 VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. i diruz lagundu dioten Kooperatiben zerrenda

## Índice

---

- 5 I. Órganos sociales
- 9 II. Saludo del Presidente
- 13 III. Información y difusión
- 29 IV. Formación
- 33 V. Asesoramiento y constitución de Cooperativas
- 37 VI. Tutorización / Seguimiento
- 39 VII. Relación de nuevas Cooperativas vinculadas a ELKAR-LAN, S. COOP. en 2013
- 89 VIII. Relación de Cooperativas que han colaborado económicamente con ELKAR-LAN, S. COOP.





ORGANO SOZIALAK  
ÓRGANOS SOCIALES





## BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL



EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN  
KONTSEILUA (EKGK-CSCE)  
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE  
EUSKADI (CSCE)



EUSKADIKO KOOPERATIBEN  
KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)  
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE  
EUSKADI (CCE)



EUSKADIKO LAN ELKARTUKO, IRAKASKUNTZAKO ETA  
KREDITUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA  
FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRABAJO ASOCIADO,  
ENSEÑANZA Y CRÉDITO DE EUSKADI

**ERKIDE**

## KONTSEILU ERREKTorea CONSEJO RECTOR



LEHENDAKARIA *PRESIDENTE*

Agustín Mendiola Gorospe

**ERKIDE**



LEHENDAKARIORDEA *VICEPRESIDENTE*

José Miguel Mera Bengoa

**KONFEKOOP**



IDAZKARIA *SECRETARIO*

Juan Luis Arrieta Pagaldai

**EKGK-CSCE**



KIDEAK *VOCALES*

Aitor Irure Espin

**ERKIDE**



Juan Manuel Cano Pérez

**ERKIDE**



Rafael Amasorrain Zabala

**ERKIDE**



Alfredo Montoya Estíbalez

**EKGK-CSCE**



Patxi Olabarria Furundarena

**KONFEKOOP**



**ZUZENDARIA** *DIRECTOR*

Fco. Javier Sanz Santaolalla





LEHENDAKARIAREN AGURRA  
SALUDO DEL PRESIDENTE



2013ko ekitaldia bizi dugun krisialdi honetako gogorrena izan da; izan ere, bost urtez etengabe metatu dira era guztietako zailtasunak ekonomia eta finantzaren arloan, eta ondorioz enpresa asko kinka larrian aurkitu dira, beraien erreserbak minimotan baitaude eta kredituak eskuratzeko aukerak gero eta zailagoak.

Horren ondorioz, azkenean itxi egin dira enpresa asko, edo hartzekodunen konkurtsora jo behar izan dute. Enpresa-munduko egoera orokor hori antzera agertu da Euskal Kooperatiba Mugimenduan ere, eta oraingoan ezin izan da libratu krisiaren gorabeheretatik.

ELKAR-LAN, S. COOP.ek testuinguru horretan lan egin du urtean zehar, oso ondo jabetuta enpresa berriak sustatzeko erakunde gisa duen zeregin garrantzitsuaz, enpresa hauek gai izan behar baitute ixten ari direnak ordezkatzeko, eta horrela enpresa-egitismo berriak, jarduera ekonomikoa eta enplegu kooperatiboa sortzen saiatu da.

Eta egia esateko, egin duen lana izugarria izan da. Zenbakiak argi adierazten dute, 2013an ELKAR-LAN, S. COOP.ek 132 kooperatibaren eraketan parte hartu baitu; oso kopuru handia da, urte bakar batean sustaturiko kooperatiben marka hautsi duena.

Horietako gehienak, 128 zehazki, Lan Elkartuko Kooperatibak izan dira, hau da, beren jarduera industria, eraikuntza, garraio eta zerbitzuen arloetan gauzatu dutenak.

Baina etxebizitzaren 2 kooperatiba ere sortu dira, bat irakaskuntzakoa eta beste 1 kontsumokoa.

Kooperatiba hauek guztiek, eratu diren unean, 429 enplegu sortu dituzte.

El ejercicio 2013 se ha caracterizado por ser el más duro del período de crisis que atravesamos y es que la acumulación de cinco años continuados de dificultades de todo tipo en la parcela económica y financiera, han situado a muchas empresas en una situación insostenible, ya que sus reservas se encuentran en mínimos y las posibilidades de acceso al crédito son cada vez más complicadas.

A consecuencia de ello, muchas empresas han acabado cerrando o declarándose en situación de concurso de acreedores. Este estado de hechos generalizado en el escenario empresarial ha tenido una manifestación semejante en el Movimiento Cooperativo Vasco, que esta vez no ha podido librarse de los avatares de la crisis.

ELKAR-LAN, S. COOP. ha trabajado en este contexto a lo largo del año, siendo plenamente consciente de su importante papel como entidad promotora de nuevas empresas que sean capaces de sustituir a las que están cerrándose y creando así nuevos proyectos empresariales, actividad económica y creación de empleo cooperativo.

Y la verdad es que el trabajo desarrollado ha sido formidable. Los números lo decantan, ya que en 2013 ELKAR-LAN, S. COOP. ha participado en la constitución de 132 Cooperativas, una cifra muy alta que bate el record de Cooperativas promovidas en un solo año.

La gran mayoría de estas, 128 concretamente, han sido Cooperativas de Trabajo Asociado, es decir Cooperativas que desarrollan su actividad en los sectores de la industria, la construcción, el transporte y los servicios.

Pero también se han promovido 2 Cooperativas de Viviendas, 1 de Enseñanza y otra de Consumo.

Todas estas Cooperativas, en el momento de su constitución suponen 429 empleos.



Lurralde Historikoen arabera, gehien Bizkaian sortu dira, 63 zehazki, Gipuzkoan 43 eta Araban 26.

Emitza hauek posible egiteko, ELKAR-LAN, S. COOP.eko langileek zabalkunde kooperatiborako kanpaina handia gauzatu dute, eta euskal aholkularitza-enpresak, notario-bulegoak, eskualdeko garapenezentroak, Behargintzak, LANBIDE, tokiko erakundeak, enpresa-sustapenerako jarduerekin erlazionaturiko beste erakunde batzuk... bisitatu dituzte.

Azken batean, ELKAR-LAN, S. COOP.ek oso txukun eta egoki bete du 2013an Euskal Kooperatiba Mugimenduaren agente espezializatu gisa dagokion zeregina, hau da, enplegu egonkor eta kalitatezkoak sortzea.

Agustin Mendiola Gorospe  
Presidentea

Por Territorios Históricos ha sido Bizkaia donde se han promovido en mayor número, 63 en concreto, seguida de Gipuzkoa con 43 y Araba con 26.

Para que estos resultados hayan sido posibles, los trabajadores de ELKAR-LAN, S. COOP. han llevado a cabo una intensa campaña de difusión cooperativa, visitando las asesorías y consultorías vascas, las notarías, los centros de desarrollo comarcal, Behargintzak, LANBIDE, entidades locales, así como otra serie de entidades relacionadas con las actividades de promoción empresarial.

En definitiva, ELKAR-LAN, S. COOP. ha cumplido en 2013 de forma muy satisfactoria su papel como agente especializado del Movimiento Cooperativo Vasco para promover nuevas empresas Cooperativas, donde se creen empleos estables y de calidad.

Agustin Mendiola Gorospe  
Presidente



## ESKER ONAK

ELKAR-LAN, S. COOP.eko Kontseilu Errektoreak eskerrak eman nahi dizkie ELKAR-LAN, S. COOP. osatzen duten langile guztiei 2013an egindako lan bikainagatik, eta aldi berean adorea eman nahi die bide emankor honetatik jarrai dezaten.

Gure esker ona, baita ere, laguntza eman diguten Erakunde Publiko eta Pribatu guztiei, eta bereziki, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien saileko Gizarte Ekonomiako eta Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzari, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako Sailari.

Eta, noski, ELKAR-LAN, S. COOP.eko bazkide diren hiru erakundeetako (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko eta ERKIDE-Euskadiko Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko Kooperatiben Federazioko) arduradunei, baita lagundu diguten Kooperatibei ere, eta hauen zerrenda 2013ko Txosten edo Oroitidazki honen barruan agertzen da.

Baita ere gure esker ona ELKAR-LAN, S. COOP.ekin lankidetzan kooperatiba-sustapenean aritu diren aholkularitza-enpresei, garapen-agentziei, udal-erakundeei eta bestelako erakundeei, kooperatiba-sustapenean lortu ditugun emaitzak ahalbidetu dituztelako, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan 132 kooperatibaren eraketan lagundu ahal izan dugulako.

## AGRADECIMIENTOS

El Consejo Rector de ELKAR-LAN, S. COOP. quiere agradecer al conjunto de las personas trabajadoras que forman parte de ELKAR-LAN, S. COOP., por el gran trabajo que han llevado a cabo en 2013, a la par que les anima a seguir por este fructífero camino.

Agradecemos también al conjunto de Instituciones Públicas y Privadas que nos han ofrecido su colaboración y en especial a la Dirección de Economía Social y de Responsabilidad Social Empresarial del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco y al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y por supuesto a los responsables de las tres entidades socias de ELKAR-LAN, S. COOP. (Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Confederación de Cooperativas de Euskadi y Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza y Crédito de Euskadi), así como a las Cooperativas que nos han apoyado y cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria 2013.

Extendemos también nuestro agradecimiento al conjunto de asesorías, Agencias de Desarrollo, entidades municipales y otras instituciones que han colaborado con ELKAR-LAN, S. COOP. para hacer posible los resultados que hemos obtenido en materia de promoción Cooperativa y que se han concentrado principalmente en el apoyo a la constitución de 132 Cooperativas en la Comunidad Autónoma Vasca.



INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA  
INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN



Aurten ere pozten gara gure lehentasunezko helburua bete ahal izan dugulako, hots, kooperatiba berrien sorrera edo eraketa bultzatzea, eta sozietate-eredu berezi hau jendartean ezagutarazteko zabalkunde-ekintzak areagotu ahal izan ditugulako.

Horretarako, gure bezero izan daitezkeenen artean, jarraitu dugu ezagutarazten zer den Kooperatiba bat, bere berezitasunak, bere barnean autoarautzeko aukera, zerga-araubide berezia, berariazko laguntzak, kontabilitate-berezitasunak, Lan Elkartuetako kooperatibetan dagoen aukera Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezian sartzeko eta abar, hau da, beste sozietate-konfigurazio batzuen aldean dituen abantailak eta ezaugarriak.

Halaber, jada gure berri bazuten erakundeekin harremanak zaindu eta sendotu egin ditugu, eta beste erakunde batzuekin beharrezko harremanak hasi ditugu ELKAR-LAN, S. COOP.en errealitatea beraiei ezagutarazteko.

Helburu hori lortzeko, ondorengoak egin dira:

## **1.- ELKAR-LAN, S. COOP. ETA BERE JARDUERAK AURKEZTEKO BANAKAKO BILERAK ETA DAGOEN ELAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK.**

Bilera horiek honako erakunde hauekin egin dira:

- \* *ENPRESA- ETA BERRIKUNTZA-ZENTROAK ETA ENPRESA-SUSTAPENERAKO ZENTROAK*

Harremanak izan ditugu Zentro horiekin, bai beraiek eskatuta eta bai geure ekimenez.

- \* *TOKI-GARAPEN EKO AGENTZIAK, ARABAKO KUADRILLAK ETA BEHARGINTZAK*

Durante un ejercicio más, nos congratulamos de haber podido llevar a cabo el cumplimiento de nuestro objetivo prioritario, al haber promocionado la creación de nuevas Cooperativas, para lo cual hemos intensificado todas nuestras actuaciones de difusión de este peculiar modelo societario de personas.

Para ello hemos seguido dando a conocer, entre nuestros potenciales destinatarios, lo que es una Cooperativa, sus peculiaridades, la posibilidad de autorregularse de forma interna, su régimen fiscal especial, las ayudas específicas, sus especialidades contables, la opción de encuadramiento en la Seguridad Social, en las Cooperativas de Trabajo Asociado, entre el Régimen General y el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, etc., esto es, sus ventajas y diferencias sobre otras configuraciones societarias.

Así mismo, se han atendido y reforzado las relaciones con las entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia, además de haber gestionado con otras entidades los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP.

Para abordar dicho objetivo se han realizado las siguientes actuaciones:

## **1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S. COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN.**

Estas reuniones, se han celebrado con las entidades siguientes:

- \* *CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN Y CENTROS DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL*

Se han mantenido contactos con dichos Centros, tanto a instancia de ellos como por nuestra propia iniciativa.

- \* *AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL, CUADRILLAS Y BEHARGINTZAK*



Guztiak bisitatu ditugu, eta, beraz, harreman erraz eta zuzenak ditugu haietako teknikariek zuzenean horrela eskatzen digutenean edota ELKAR-LAN, S. COOP.etik antolatzen diren ekitaldietan: adibidez, 2013ko ekitaldian Kooperatibentzako laguntzei buruzko jardunaldi bat, 2013ko uztailaren 4an Bilboko Ercilla Hotelean egin genuena.

Ekitaldi honetan bisitatu eta harremanak izan ditugu honako Garapen Agentzia hauekin: Loiola Berrikuntza Fundazioa; Donostialdeako Autoenpleguari Laguntzeko Zerbitzua; Bidasoa Activa (ADEBISA); Iraurgi Lantzen; Goieki; Debagoieneko Mankomunitatea; Tolosaldea Garatzen; Donostiako Sustapena; Oarsoaldea; eta Behargintza hauek: Balmaseda, Basauri-Etxebarri, Bermeo, Enkarterriak, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde, Mungia, Sestao, Santurtzi, Urduña, Uribe-Kosta, Txorierri, Ekintza-Bilbao.

Halaber, erakunde horiekin izan ditugun bilerak azpimarratu behar ditugu, beraien lokaletan beraien teknikariek eskatuta, eredu kooperatiboa ezagutzeko interesa zuten sustatzaileekin; hori ezinbesteko urratsa da, gure iritziz, sustatzaileek hausnar dezaten beren enpresa-proiektua kooperatiba-elkarte gisa gauzatzeko komenientziaz, eta eredu hori ongi ezagut dezaten eta beste sozietate-aukera askoren artean hori ere kontuan har dezaten.

Bereziki aipatu behar dira Getxolan, DEMA, eta Basauri-Etxebarriko Behargintza eta Ermuko Udala.

Getxolan, ekitaldi honetan antolatu dituzten Enpresa Kudeaketako ikastaro guztietan (5 izan dira) parte hartu dugulako eredu kooperatiboa aurkezten bertaratutako sustatzaileei; eta eskertzen dugu, zeren eta horrek, gero sustatzaileek egingo duten aukeraketa gorabehera, gure eredu ezagutaraztea errazten baitigu.

Basauri-Etxebarriko Behargintzak ere aukera eman digu bere Enpresa Kudeaketako 6 ikastaroetan parte hartzeko, eta horietan ere eredu kooperatiboa aurkeztu diegu bertaratuei.

Habiendo sido todas ellas visitadas, mantene-mos contactos fluidos y directos con sus técnicos y, cuando éstos así nos lo requieren directamente o en los eventos que se organizan desde ELKAR-LAN, S. COOP., tales como una jornada relacionada con las ayudas para las Cooperativas en el ejercicio 2013, que convocamos en el Hotel Ercilla de Bilbao, el 4 de julio de 2013.

En este ejercicio hemos visitado y hemos mantenido relaciones con las siguientes Agencias de Desarrollo: Loiola Berrikuntza Fundazioa; Servicio de Apoyo de Autoempleo Comarca de Donostialdea; Bidasoa Activa (ADEBISA); Iraurgi Lantzen; Goieki; Debagoieneko Mankomunitatea; Tolosaldea Garatzen; Fomento de San Sebastián; Oarsoaldea y las Behargintzak de Balmaseda; Basauri-Etxebarri; Bermeo; Encartaciones, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde; Mungia, Sestao; Santurtzi; Urduña; Uribe-Kosta; Txorierri; Ekintza-Bilbao.

Así mismo, debemos resaltar las reuniones que hemos mantenido con dichas entidades, en sus locales, a instancia de su personal técnico, con las personas promotoras interesadas en conocer el modelo cooperativo, paso este imprescindible, para que podamos hacer reflexionar a las personas promotoras sobre la conveniencia de poder realizar su proyecto empresarial en la forma societaria cooperativa, así como para que conozcan dicho modelo y puedan bajarlo entre las diferentes opciones societarias.

Una mención especial se merecen Getxolan, DEMA y la Behargintzak de Basauri-Etxebarri, y el Ayuntamiento de Ermua.

A Getxolan porque hemos participado en todos los cursos de Gestión de Empresas, que han organizado en este ejercicio, que han sido 5, para exponer el modelo cooperativo, a los promotores asistentes, lo cual agradecemos, ya que nos facilita la difusión de nuestro modelo, sin menoscabo de la elección que al efecto realicen los promotores.

La Behargintza de Basauri- Etxebarri, también nos ha posibilitado participar en sus 6 cursos de Gestión de Empresas, en los que explicábamos a los asistentes el modelo cooperativo.



Ermuko Udalarekin ere aurtengo ekitaldian Enpresa Kudeaketari buruz antolatu dituzten ikastaro guztietan parte hartu dugu.

DEMA Enpresa Sorkuntza eta Garapenerako Agentziarekin ezkeraldeko langabetuentzako 10 lantegi edo tailerretan parte hartu dugu, kooperatiba-eredua azalduz eta jendarteratuz. Eta alde zuzenetik, zuzendaritza-talde osoari eta teknikariei jardunaldi bat eman genien kooperatiba-ereduaz, Barakaldon duten egoitza sozialean.

\* *UDALAK*

Gure erakundea EAEko udalei herrian Tokiko Garapen Agentziarik ez dutenei ezagutarazteko helburuarekin, 28 bisita pertsonalizatu egin ditugu, eta alkateekin egon gara, edota horiek eskuordeturiko zinegotziekin, enplegu-arloaren arduradunak zirelako.

\* *BULKA BUSINESS ANGELS ELKARTEA*

Koordinatzaile nagusiari eta elkarteko kide bati gure erakundea aurkeztu genien, Kooperatiba Mistoaren modalitatea eta bazkide minoritarioen modalitatea, bazkide-mota hau oso egokia izan daiteke-eta Business Angels-entzat.

\* *SEED CAPITAL BIZKAIA*

Zuzendariarekin bildu ginen bere jardura guri ezagutarazteko, baita guk sustatzen ditugun erakunde kooperatiboek haiekin parte hartzeko aukerak ere.

\* *LANBIDE*

Honako bulego hauekin izan ditugu harremanak: Agurain, Basauri (2 bulego), Bilbo (6 bulego), Barakaldo (Beurko eta Burtzeña), Elgoibar, Erandio, Getxo, Gernika-Lumo, Irun, Lasarte-Oria, Oion eta Portugalete.

\* *GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINNTZA NAGUSIA*

Ekitaldian sortu ditugun kooperatiben premien arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde

Así mismo con el Ayuntamiento de Ermua también hemos participado en todos los cursos de Gestión de Empresa que ha impartido durante el presente ejercicio.

Con la Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial DEMA hemos participado en 10 talleres para desempleados de la margen izquierda, explicando y difundiendo el modelo cooperativo. Y previamente impartimos a todo su equipo directivo y técnicos una jornada sobre el modelo cooperativo, en su sede social sita en Barakaldo.

\* *AYUNTAMIENTOS*

Con el objetivo de dar a conocer nuestra entidad a Ayuntamientos de la CAPV que no tienen en sus localidades Agencias de Desarrollo Local, hemos realizado 28 visitas personalizadas, con sus alcaldes o concejales en los que delegaban dicha función por ser responsables del área de empleo.

\* *ASOCIACIÓN BULKA BUSINESS ANGELS*

Presentamos a su Coordinador General y a uno de sus integrantes, nuestra entidad así como la modalidad de la Cooperativa Mixta y el alcance de la modalidad de los socios minoritarios como una clase de socio muy ajustada a los Business Angels.

\* *SEED CAPITAL BIZKAIA*

Celebramos una reunión con su Director para darnos a conocer su actividad así como las diferentes posibilidades de participación de las entidades cooperativas que promovemos.

\* *LANBIDE*

Hemos tenido relaciones con las oficinas de Agurain, Basauri (en 2 oficinas), Bilbao (en 6 oficinas), Barakaldo (Beurko y Burtzeña), Elgoibar, Erandio, Getxo, Gernika-Lumo, Irún, Lasarte-Oria, Oion y Portugalete

\* *TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL*

Se han realizado diferentes gestiones con técnicos de las oficinas de la Tesorería General de la



Historikoetako bakoitzean Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren bulegoetako teknika-riekin hainbat zuzemen edo gestio egin dugu.

\* *ESTATUKO ENPLEGUAREN ZERBITZU PUBLIKOA (SPEE)*

SPEE-k Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak EAEn dituen Zuzendaritza Probintzietako arduradun eta teknikariek bilerak eta gestio edo zuzemenak egin ditugu, baita tokian tokiko bulegoen sareko gehienekin ere.

\* *MERKATARITZA-GANBERAK*

Harreman onak izan ditugu guztiekin, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetatik Enpresak Sortu eta Finkatzeko Laguntza Zerbitzuek bidalitako sustatzaileak hartu ditugu.

\* *KONTSULTA- ETA AHOLKULARITZA-ENPRESAK*

Arreta pertsonalizatu berezia eman zaie hauei, 2013ko Oroitidazkiko kapitulu honen 10. atalean ikus daitekeen bezala.

\* *FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK*

Harremanak izan ditugu honako hauekin:

- Michelin Fundazioa
- Azaro Fundazioa
- Gaztenpresa Fundazioa
- Enpresa Garapenari Laguntzeko Elkarte (DEMA)
- Bulka Business Angels Elkarte (BULKA)
- Mundukide Fundazioa
- Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL)
- Bizkaiko WORK-LAN Elkarte
- Arabako Emakume Profesional eta Enpresaburuen Elkarte (AMPEA)
- Gipuzkoako Zerga Aholkularien Elkarte
- Nazioarteko Zuzenbide Kooperatiboaren Elkarte (AIDC)

\* *FORU-ALDUNDIAK*

Bilerak egin eta harremanak izan ditugu gure Autonomia Erkidegoan hiru Lurreko Historikoetan

Seguridad Social de cada uno de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa en función de las necesidades de las Cooperativas que hemos constituido a lo largo del ejercicio.

\* *SERVICIO PUBLICO DE EMPLEO ESTATAL (SPEE)*

Se han realizado diferentes gestiones y reuniones con responsables y técnicos de las Direcciones Provinciales de la CAPV del Servicio Público de Empleo Estatal (SPEE), así como en la mayoría de su red de oficinas locales

\* *CÁMARAS DE COMERCIO*

Hemos tenido fluidas relaciones con todas ellas y se ha atendido a promotores que nos han remitido desde el Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas, de las Cámaras de Comercio de Araba, Bizkaia y de Gipuzkoa.

\* *CONSULTORÍAS Y ASESORÍAS*

Siguen siendo objeto de una especial atención personalizada, tal y como se refleja en el apartado 10 de este capítulo de la Memoria 2013.

\* *FUNDACIONES Y ASOCIACIONES*

Se han mantenido relaciones con:

- Fundación Michelin.
- Azaro Fundazioa
- Fundación Gaztempresa
- Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial (DEMA).
- Asociación Bulka Business Angels (BULKA)
- Mundukide Fundazioa.
- Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL)
- Asociación WORK-LAN de Bizkaia
- Asociación de Mujeres Profesionales y Empresarias de Álava (AMPEA).
- Asociación de Asesores Fiscales y Tributarios de Gipuzkoa.
- Asociación Internacional de Derecho Cooperativo (AIDC).

\* *DIPUTACIONES FORALES*

Se han mantenido relaciones con los Departamentos, con competencias y responsabilidades



enpresa-sustapenaren arloan eskumenak eta erantzukizunak dituzten sail edo departamentuekin, eta bereziki estuak izan dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

\* *UNIBERTSITATEAK*

Euskal Herriko Unibertsitateko (Gezki) eta Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba eta Gizarte Ekonomiako Institutuen, baita ere Mondragon Unibertsitatearen, bilera eta ekitaldietan parte hartu dugu; eta CIRIECek, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Zerga Azterketen Institutuak antolatutako ekitaldietan ere izan gara.

**2.- HERRI ONURAKO KOOPERATIBA GISA DUGUN IZAERA EZAGUTARAZTEA.**

ELKAR-LAN, S. COOP. egiten duen jardueratik Herri Onurako Kooperatibatzat jota dago, eta horretarako ikus: **AGINDUA, 2005eko martxoaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena. Honen bidez, Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, Koop. Sozietateari herri onurako izaera ematen zaio** (2005eko apirilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua).

Eta gure jardueraren jasotzaile direnek gure herri-onurako izaera hori ezagut dezaten, komunikatzeko eta jendartean zabaltzeko ekintzak egin dira, agerian jartzeko gure jarduerak Euskadiko interes orokorra sustatzeko direla, eta horrek harrotu egiten gaituela, gure misioarekin eta kooperatiba-balio eta printzipioekin koherentea delako.

**3.- EAE-KO ENPRESETARA ZIRKULARRAK KOPURU HANDITAN BIDALTZEA KOOPERATIBA BIHURTZEKO DAUDEN LAGUNTZEN BERRI EMANEZ, INTERESA DUTEN ENPRESETARA BISITA EGITEA, ETA BERAIEN ORDEZKARIENTZAKO JARDUNALDI BEREZI BAT EGITEA.**

Euskal Autonomia Erkidegoan Kooperatiba ez diren enpresa txikiei, berariazko zirkular baten bidez,

en el área de promoción empresarial, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma, si bien de forma más estrecha con la Diputación Foral de Bizkaia.

\* *UNIVERSIDADES Y OTRAS ENTIDADES*

Hemos participado en eventos y reuniones de los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la Universidad del País Vasco (Gezki) y de la Universidad de Deusto, así como con Mondragón Unibertsitatea, y también a eventos organizados por el CIRIEC, así como por la Academia Vasca del Derecho y por el Instituto de Estudios Fiscales.

**2.- DIFUSIÓN DE NUESTRA CONDICIÓN DE COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA.**

ELKAR-LAN, S. COOP., por la actividad que realiza, fue declarada Cooperativa de Utilidad Pública, a tenor de lo dispuesto en la **ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP.** (Publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005).

Y con el objetivo de que esta declaración de utilidad pública sea conocida, por los destinatarios de nuestras actuaciones, se han realizado las actuaciones de comunicación y de difusión, para poner de manifiesto que nuestras actividades están contribuyendo a la promoción del interés general de Euskadi, lo cual nos enorgullece, por ser coherente con nuestra misión y con los valores y principios cooperativos.

**3.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS, VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS Y CELEBRACIÓN DE UNA JORNADA ESPECÍFICA PARA LAS PERSONAS REPRESENTANTES DE LAS MISMAS.**

ELKAR-LAN, S. COOP., ha informado a las empresas pequeñas no Cooperativas, de la Comunidad Autó-



Kooperatiba bihurtzeko dauden laguntzen berri eman die ELKAR-LAN, S. COOP.ek.

Ekintza horien ondorioz, interesa azaldu duten 78 enpresa bisitatu dira eta beraiekin zuzemen eta gestioak egin dira; jabeekin edo akziodun nagusiekin izan diren bilerak edo harremanak beti zuzen-zuzenean eta isilpean egin dira.

#### **4.- KORPORAZIO-IRUDIA ETA WEBGUNEA (www.elkarlan.coop)**

Gure irudi korporatiboa jendartean zabaltzeko gure euskarri grafikoak (Jarduera Txosten edo Oroitidazkia, triptikoak, zirkularrak, jardunaldietarako deialdiak eta gure webgunea www.elkarlan.coop) ari gara erabiltzen eta optimizatzen.

Gure webguneari dagokionez, etengabe gaurkotzen dugu, eta sarean gero eta gehiago zabaltzen da; internet bidezko kontsultak ere gehiago izan ditugu ekitaldi honetan.

#### **5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIO-BULEGOEKIN HARREMANAK, KOOPERATIBEN ERAKETAN BEREN LANA ERRAZTEKO.**

Gure helburu estrategikoetako bat eredu kooperatiboaren zabalkunde izanik, hain kualifikatua den talde honekin ere harreman oparoak izan ditugu; horren ondorioz, esan genezake, oro har, Kooperatibak eratzeko izapideak koordinazio eta eraginkortasun handiagoz ari direla egiten notarioen bulegoak, batez ere Kooperatiba eratzeko eskritura euskarri elektronikoan erabiltzen dutelako bulego batzuetan; dena den, guri iruditzen zaigu oraindik badugula hobekuntza-eremurik, eta horrek eramaten gaitu etengabeko lankidetzara notario-bulegoekin.

#### **6.- KOMUNIKABIDEETAN ELKARRIZKETAK ETA PARTEHARTZEAK.**

ELKAR-LAN, S.COOP. bere sustatze-jardueragatik albiste izan da hainbat hedabideetan, telebistan,

noma del País Vasco, mediante una circular específica, de las ayudas existentes para su transformación en Cooperativas.

Como fruto de estas actuaciones se visitaron y se realizaron gestiones con 78 empresas que se interesaron por su contenido, manteniendo siempre las reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios, de forma directa y confidencial.

#### **4.- IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB (www.elkarlan.coop)**

Estamos aprovechando y optimizando nuestros diferentes soportes gráficos, desde nuestra Memoria de Actividades hasta los trípticos, circulares, convocatorias de jornadas y nuestra página web www.elkarlan.coop, para difundir nuestra imagen corporativa.

En lo que se refiere a nuestra página web, queremos resaltar su actualización constante y su mayor difusión en la red, así como el incremento de las consultas por internet durante este ejercicio.

#### **5.- RELACIONES CON LAS NOTARÍAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS.**

Siendo uno de nuestros objetivos estratégicos la difusión del modelo cooperativo, también con este colectivo tan cualificado seguimos manteniendo relaciones fluidas, y como consecuencia de ello, podemos afirmar que estamos apreciando que, en general, las notarías están realizando las tramitaciones de las constituciones de Cooperativas de una forma más coordinada y eficiente, sobre todo con la utilización de la escritura de constitución de la Cooperativa en soporte electrónico en algunas Notarías, si bien todavía consideramos que tenemos campos de actuación para la mejora, lo que nos lleva a una continua colaboración con las notarías.

#### **6.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN.**

ELKAR-LAN, S.COOP., ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunica-



irratian, eguneroko prentsa idatzian eta ekonomia-gaietako prentsan, baita aldizkari espezializatueta ere (KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo, punto coop)

Beste zenbait hedabidetan –EAEn hedapen handiena duten prentsa idatzi nahiz irratietan– ere parte hartu eta kolaboratu du, betiere kooperatibak sustatzeko gure bokazioa adierazi eta euskal gizartea kooperatiba-enpresak sortzera bultzatzeko helburuarekin.

## 7.- ZENBAIT EKITALDITAN PARTE-HARTZEA.

ELKAR-LAN, S.COOP.eko teknikariek parte hartu eta zuzenean edo zeharka eredu kooperatiboa zabaldu edo ezagutarazi dute ondorengo ekitaldiotan:

- *Aprender a Vender* tailerrean izan ginen, SPRI-REN EKINTZAILTZAKO EUSKAL ZERBITZUAK antolatu zuen (Bizkaia Aretoa, Abandoibarra, Bilbo, urtarrilaren 15a).
- Kooperatiben Finantzaketari buruzko Jardunaldian parte hartu genuen, Euskadiko Lan Elkartu, Irakaskuntza eta Kredituko Kooperatiben Federazioak (ERKIDE) antolatuta (Gasteiz, urtarrilaren 17a).
- *“Impulsando pymes: conocer para crecer. Reinvéntame”* izeneko jardunaldian izan ginen; BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, BILBOKO UDALAK ETA ENPRESA HANDIEK antolatu zuten (Bilbo, Euskalduna jauregia, otsailaren 6a).
- Eredu Kooperatiboari buruzko Prestakuntza eman genien ekintzaileei BASAURI-ETXEBARRIKO BEHARGINTZAREN egoitzan, ekintzaileentzako kudeaketa-ikastaroetako 6tan (Basauri-Etxebarri, otsailaren 18a; martxoaren 11; maiatzaren 15a; ekainaren 5a; irailaren 18a eta urriaren 16a).
- Eredu Kooperatiboari buruzko Prestakuntza eman genien ekintzaileei GETXOLANen egoitzan, ekintzaileentzako kudeaketa-ikastaroetako 5etan (Areeta, otsailaren 18a; apirilaren 22a; uztailaren 1a; urriaren 29a eta abenduaren 12a).
- PASUEN FORUAKO bileretan izan ginen, otsailaren 19an eta apirilaren 16an, ASLEren eta

ción, tanto de televisión, radio, prensa escrita diaria y de índole económica, así como en revistas especializadas tales como: Koop Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo, punto coop.

También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.

## 7.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS.

Los técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP., han difundido el modelo cooperativo, en los eventos siguientes:

- Asistimos al Taller de Aprender a Vender, organizado por el SERVICIO VASCO DE EMPRENDIMIENTO DE LA SPRI (Bizkaia Aretoa (Abandoibarra), Bilbao, 15 de enero).
- Participación en la Jornada sobre la Financiación de las Cooperativas, organizada por la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza y Crédito de Euskadi (ERKIDE) (Vitoria-Gasteiz, 17 de enero).
- Asistimos a la Jornada titulada “Impulsando pymes: conocer para crecer. Reinvéntame” organizada por la DIPUTACIÓN FORAL BIZKAIA, AYUNTAMIENTO BILBAO Y GRANDES EMPRESAS. (Bilbao, Palacio Euskalduna, 6 de febrero).
- Impartimos Formación sobre el Modelo Cooperativo a emprendedores en la sede de la BEHARGINTZA DE BASAURI-ETXEBARRI, en 6 de sus cursos de gestión para emprendedores (Basauri-Etxebarri, 18 de febrero; 11 de marzo; 15 de mayo; 5 de junio; 18 septiembre y 16 octubre).
- Impartimos Formación sobre el Modelo Cooperativo a emprendedores en la sede de GETXOLAN, en 5 de sus cursos de gestión para emprendedores (Las Arenas, 18 de febrero; 22 de abril; 1 de julio; 29 de octubre y 12 de diciembre)
- Asistimos a las reuniones de PASUEN FORUA, en sus sesiones de 19 de febrero y 16 de abril,



DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN egoitzetan egin zirelarik, hurrenez hurren.

- ¿Por qué crear una Cooperativa? tailerrean parte hartu genuen hizlari gisa Gasteizko Ekonomia Sustapen Sailak antolatuta (Gasteiz, otsailaren 28a).
- Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioaren (COCETA) Ohiko Batzar Nagusian izan ginen, Condestable jauregian (Iruñea, martxoaren 5a).
- “La Cooperativa de Trabajo Asociado Mixta” gaiari buruzko bi hitzaldi prestatu eta eman genizkien ARABA ANBULANTZIAK enpresako besteren konturako langileei (Gasteiz, ERKIDEn egoitza, martxoaren 7a eta 14a).
- Langabetuentzako 10 lantegi eredu kooperatiboaz El Gallo mintegian, DEMAk antolatuta (Sestao, martxoaren 20, 21, 22, 25 eta 26a eta ekainaren 5, 6 eta 7a).
- Gure erakundea aurkeztu genion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saileko Gizarte Ekonomia eta Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariari (Bilbo, martxoaren 27a).
- Sormenezko Industriaren Nazioarteko Forumean izan ginen, “Creativity Meeting Point” deituan (Bilbo, Itsas Museoa, martxoaren 19, 20 eta 21a).
- Euskadiko ONCEren Sari Solidarioen IX. edizioan izan ginen (Kutxabank aretoa, Bilbo, apirilaren 25a).
- Lan Elkartuko Kooperatiba Mistoaren ereduari buruzko hitzaldia Uba-ko langile talde batentzat eta ‘habia’ proiektuko beste batzuentzat, biak ere AGINTZARI, S. COOP.etik etorriak (Uba, Donostia, apirilaren 30a).
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN parte hartu genuen “La Creación de Sociedades Cooperativas. Puesta en marcha de Cooperativas y Presentación de Elkar-Lan, S. Coop.” izeneko hitzaldia prestatu eta eman (Bilbo, maiatzaren 2a).
- OINARRI, S.G.R.ren Ohiko Batzar Nagusian izan ginen (Artium museoa. Gasteiz, maiatzaren 17a).
- celebradas respectivamente, en la sede de ASLE y de la UNIVERSIDAD DE DEUSTO.
- Participamos como ponentes en el Taller ¿Por qué crear una Cooperativa?, organizado por el Departamento de Promoción Económica de Vitoria-Gasteiz (Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero).
- Asistencia a la Asamblea General Ordinaria de la Confederación de España de Cooperativas de Trabajo Asociado (COCETA), que se celebró en el Palacio Condestable (Pamplona, 5 de marzo).
- Preparación e impartición de dos charlas sobre “La Cooperativa de Trabajo Asociado Mixta” para los trabajadores por cuenta ajena de ARABA ANBULANTZIAK (Vitoria-Gasteiz, sede de ERKIDE, 7 y 14 de marzo).
- Impartición de 10 talleres para desempleados, sobre el modelo cooperativo, en el vivero el Gallo, organizado por DEMA (Sestao, 20, 21, 22, 25 y 26 de marzo y el 5, 6 y 7 de junio).
- Presentación de nuestra entidad a la Directora de Economía Social y Responsabilidad Social Empresarial del Departamento de Empleo y de Políticas Sociales, del Gobierno Vasco. (Bilbao, 27 de marzo).
- Asistencia al Forum Internacional de las Industrias creativas, denominado “Creativity Meeting Point”. (Bilbao, Museo Marítimo, 19, 20 y 21 de marzo).
- Asistimos a la IX Edición de Premios Solidarios de la ONCE de Euskadi. (Sala de Kutxabank, Bilbao, 25 de abril).
- Charla sobre el modelo de Cooperativa de Trabajo Asociado Mixta, para un grupo de trabajadores de Uba y para otros del proyecto nidos, ambos provienen de AGINTZARI, S. COOP. (Uba, San Sebastián, 30 de abril).
- Participamos en la UNIVERSIDAD DE DEUSTO con la elaboración y exposición de la ponencia titulada “La Creación de Sociedades Cooperativas. Puesta en marcha de Cooperativas y Presentación de Elkar-Lan, S. Coop.” (Bilbao, 2 de mayo).
- Asistencia a la Junta General Ordinaria de OINARRI, S.G.R. (Museo Artium. Vitoria-Gasteiz, 17 mayo).



- Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren VII. Kongresuan izan ginen; Enpresaren Gizarte Erantzukizuna Araba Foroak (FOARSE) antolatuta, Gasteizen izan zen (Europa jauregia, maiatzaren 22a).
- BIDASOA ACTIVAn ekintzaileentzako prestakuntza kooperatiboaz jardunaldia eman genuen (Irun, maiatzaren 25a).
- Gure erakundearen aurkezpena DONOSTIALDEA ESKUALDEKO AUTOENPLEGURAKO LAGUNTZA-ZERBITZUARI. (Andoain, maiatzaren 27a).
- ERKIDEn Ohiko Batzar Nagusian eta ondorengo hitzaldian izan ginen (Miñako Teknologia Parkea, maiatzaren 30a).
- KONFEKOOPen Ohiko Batzar Nagusia (Miñako Parke Teknologikoa, maiatzaren 31).
- Gizarte Ekonomiako Jardunaldietan hizlari gisa parte hartu genuen, Sestao eta Santurtziko Behargintzek antolatuta, eta eredu kooperatiboa azaldu genuen (Liburutegia, Sestao, ekainaren 3a).
- Espainiako Informazio Gizartearen Txostenaren (2012) aurkezpenean izan ginen, TELEFÓNICAK antolatuta, Bilbon (Guggenheim museoa, ekainaren 3a).
- Ramon Jauregik emandako *“Una Agenda Reformista para la Crisis”* hitzaldian izan ginen; RAMÓN RUBIAL Fundazioak antolatu zuen Bilbon (Euskalduna jauregia, ekainaren 13a).
- *“La Situación Institucional y Política en la Unión Europea. Política de Regeneración Democrática y de Reforma Institucional. Papel de la Economía Social”* gaiari buruzko jardunaldian parte hartu genuen, GEZKI-UPVek antolatuta Donostian (EHU-UPVko Zuzenbide Fakultatea, ekainaren 14a).
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE KOOPERATIBOAREN NAZIOARTEKO ELKARTEAREN Batzorde Teknikoan parte hartu genuen, eta gai nagusia *“El Capital Comanditario como Medio para Incrementar los Recursos Propios de las Cooperativas”* izan zen (Craig liburutegia. Deustuko unibertsitatea. Bilbo, ekainaren 20a).
- Asistencia al VII Congreso de Responsabilidad Social Empresarial, organizada por el Foro Álava Responsabilidad Social Empresarial (FOARSE), que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz (Palacio Europa, 22 de mayo).
- Impartición en BIDASOA ACTIVA de una Jornada sobre formación Cooperativa para emprendedores (Irún, 25 de mayo).
- Presentación de nuestra entidad al SERVICIO DE APOYO DE AUTOEMPLEO COMARCA DE DONOSTIALDEA. (Andoain, 27 de mayo).
- Asistencia a la Asamblea General Ordinaria de ERKIDE y a su posterior conferencia. (Parque Tecnológico de Miñano, 30 de mayo).
- Asistencia a la Asamblea General Ordinaria de KONFEKOOP (Parque Tecnológico de Miñano, 31 de mayo).
- Participamos como ponentes en las Jornadas sobre Economía Social, organizadas por las Behagintzak de Sestao y Santurce, exponiendo el modelo cooperativo. (Biblioteca, Sestao, 3 de junio).
- Asistencia a la presentación del Informe de la Sociedad de la Información en España 2012, organizado por TELEFÓNICA, en Bilbao (Museo de Guggenheim, 3 de junio).
- Asistimos a la conferencia *“Una Agenda Reformista para la Crisis”*, que impartió Ramón Jáuregui, organizada por la FUNDACIÓN RAMÓN RUBIAL, que tuvo lugar en Bilbao (Palacio Euskalduna, 13 junio).
- Participamos en la jornada sobre *“La Situación Institucional y Política en la Unión Europea. Política de Regeneración Democrática y de Reforma Institucional. Papel de la Economía Social”*, organizada por GEZKI-UPV, en San Sebastián (Facultad de Derecho de la EHU-UPV, 14 de junio).
- Participamos en la Comisión Técnica de la ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE DERECHO COOPERATIVO de la UNIVERSIDAD DE DEUSTO siendo su temática central *“El Capital Comanditario como Medio para Incrementar los Recursos Propios de las Cooperativas”*. (Biblioteca Craig. Universidad de Deusto. Bilbao, 20 de junio).



- Eredu Kooperatiboaz prestakuntza eman genien ekintzaileei OARSOALDEAren egoitzan. (Oiartzun, ekainaren 26a).
- EAEko aholkularientzat jardunaldiak egin genituen Bilbon, Donostian eta Gasteizen, Kooperatiba eta bere bazkideentzako Eusko Jaurlaritzak dituen laguntza-programei buruz informatzeko, baita kooperatibetan eragiten duten gai nagusiez ere (Donostia, Amara hotela, ekainaren 27a; Bilbo, Ercilla hotela, uztailaren 4a; eta Gasteiz, ERKIDE egoitza, uztailaren 5a).
- 2012 CES VASCO Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txosten sozio-ekonomikoaren aurkezpenean izan ginen (CESen egoitza, Bilbo, uztailaren 16a).
- Eredu kooperatiboaz hitzaldia ESKURTZE INSTITUTUKO ikasleei, Merkataritza Jardueren graduko bigarren urtekoei (Bilbo, Eskurtze Institutua, irailaren 20a).
- Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioarekin (CEPES) elkarlanean aritu ginen, bai enpresak kooperatiba bihurtzeko eraldaketa-prozesuetan eta langile batzuek kooperatiba bat abian jarri nahi dutenetan konkurtsu-prozeduran administrazio-izapideak sinplifikatzeko inkestak prozesatzeko ardura zuen enpresarekin parte hartuz eta bai inkestari erantzunez (Bilbo, irailaren 23a).
- “La transformación de la Fundación Peñasal en Cooperativa” hitzaldia prestatu eta eman genuen, Financoop-en Nazioarteko 2. Jardunaldian, KATALUNIAKO GENERALITAT-EKO ENPRESA ETA ENPLEGU SAILAK, SEIRA FUNDAZIOAK, LABORAL KUTXAK eta OINARRI SGRek antolatuta (Bartzelona, urriaren 10a).
- Ekintzaileentzako 2 tailerretan eredu kooperatiboaz parte hartu genuen hizlari gisa, GASTEIZKO EKONOMIA SUSTAPEN SAILAK antolatuta (Gasteiz, urriaren 15a, goizez bat eta arratsalde bestea).
- Hitzaldia eredu kooperatiboaz ECUADOR ETXEA ELKARTEARENTZAT (Elkartearen egoitza, Bilbo, urriaren 18a).
- Impartimos Formación sobre el Modelo Cooperativo a emprendedores en sede de OARSOALDEA. (Oiartzun, 26 de junio).
- Impartimos Jornadas para los asesores y consultores de la CAPV en Bilbao, San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, para informarles sobre los programas de ayudas a las Cooperativas y sus socios del Gobierno Vasco, así como las principales cuestiones que afectan a las Cooperativas (San Sebastián, Hotel Amara, 27 de junio; Bilbao, Hotel Ercilla, 4 de julio y Vitoria-Gasteiz, sede ERKIDE, 5 de julio).
- Asistimos a la presentación de la memoria socio económica 2012 del CES VASCO (Sede del CES, Bilbao, 16 de julio).
- Impartición de una charla sobre el modelo cooperativo a alumnos, del INSTITUTO ESKURTZE, del segundo curso del grado de Actividades Comerciales. (Bilbao, Instituto Eskurtze, 20 de septiembre).
- Colaboramos con la Confederación Empresarial Española de la Economía Social (CEPES), participando con la empresa encargada para procesar las encuestas para simplificar trámites administrativos en procesos de transformación de empresas en Cooperativas y en el procedimiento concursal cuando algunos trabajadores quieren poner en marcha una cooperativa, y respondiendo a la encuesta (Bilbao, 23 septiembre).
- Elaboración e impartición de una ponencia sobre “La transformación de la Fundación Peñasal en Cooperativa”, en la 2ª Jornada Internacional de Financoop, organizada por el DEPARTAMENTO DE EMPRESAS Y EMPLEO DE LA GENERALITAT DE CATALUNYA; FUNDACIÓN SEIRA; LABORAL KUTXA; OINARRI SGR. (Barcelona, 10 de octubre).
- Participamos como ponentes en 2 talleres sobre el modelo cooperativo para emprendedores, organizados por el DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONOMICA DE VITORIA-GASTEIZ (Vitoria-Gasteiz, 15 de octubre, por la mañana uno y otro por la tarde).
- Impartición de una Charla sobre el modelo cooperativo para la ASOCIACIÓN ECUADOR ETXEA (Sede de la Asociación, Bilbao, 18 de octubre).



- EHUko Anton Borja ekonomialari eta irakasleak eman zuen *“Apuntes para una Estrategia Económica Vasca de Futuro”* hitzaldian izan ginen, GAINDEGIA Euskal Herriaren garapen sozio-ekonomikorako Behatokiak antolatuta. (Bizkaiko Batzar Nagusien aretoa, Bilbo, urriaren 23a).
- Hitzaldia eredu kooperatiboaz SARTU ZABALTZEN Elkarteko langileentzat (Elkartearen egoitza soziala, Durango, azaroaren 6a).
- TXEMI CANTERA Sariaren 23. edizioan izan ginen, ASLEk antolatuta, Golder Associates-i eman zitzaion (Carlton hotela. Bilbo, azaroaren 14a).
- *“La Transmisión de los Valores Cooperativos a los Jóvenes y la Intercooperación en la Cooperativa del siglo XXI”* (Balio Kooperatiboen Transmisioa Gazteei eta Lankidetzara XXI. Mendeko Kooperatibaren) jardunaldian izan ginen, ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAK, ZU- ZENBIDE KOOPERATIBOAREN NAZIOARTEKO ELKARTEAK, ZERGA-AZTERKETEN INSTITUTUAK, CIRIEC-ESPAÑA-K ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ZUZENBIDE-FAKULTATEAK antolatu zuten (Deustuko Unibertsitateko auditoriuma, Bilbo, azaroaren 21a).
- Pertsona Nagusiak edo/eta Mendekotasuna dutenak Teknologia erabiliz Etxean zaintzeko Jardunaldian izan ginen; antolatzaileak TECNALIA, GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S. COOP., BILBOKO UDALA eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIA izan ziren (Bizkaia Aretoa, Abandoibarra, Bilbo, azaroaren 22a)
- Eredu Kooperatiboaz Prestakuntza eman genien ekintzaileei TOLOSALDEA GARATZENen egoitzan (Tolosa, azaroaren 23a).
- EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUKO Senior Aholkularien bileretan izan ginen uztailaren 2an eta abenduaren 11n (Laboral Kutxaren Donostiako bulegoa, uztailaren 2a; eta ‘Nuestra Señora del Campo’ Ardo Kooperatibaren egoitza, Lantziego, abenduaren 11).
- 2013 Urteko Zerga Itxiera eta 2014ko Zerga Nobedadei buruzko jardunaldian izan ginen;
- Asistimos a la conferencia titulada *“Apuntes para una Estrategia Económica Vasca de Futuro”*, impartida por el economista y profesor de la UPV, Anton Borja, organizada por el Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria GAINDEGIA. (Sala de las Juntas Generales de Bizkaia, Bilbao, 23 de octubre).
- Impartición de una Charla sobre el modelo Cooperativo para los trabajadores de la Asociación SARTU ZABALTZEN (Sede social de la Asociación, Durango, 6 de noviembre).
- Asistimos al Premio TXEMI CANTERA (edición 23), organizado por ASLE, que se otorgó a Golder Associates. (Hotel Carlton. Bilbao, 14 de noviembre).
- Asistimos a la Jornada sobre *“La Transmisión de los Valores Cooperativos a los Jóvenes y la Intercooperación en la Cooperativa del siglo XXI”*, organizado por LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO, LA ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE DERECHO COOPERATIVO, EL INSTITUTO DE ESTUDIOS FISCALES, CIRIEC-ESPAÑA Y LA FACULTAD DE DERECHO DE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO (Auditorio de la Universidad de Deusto, Bilbao, 21 de noviembre).
- Asistimos a la Jornada de Atención a Personas Mayores y/o Dependientes en el Entorno Doméstico Mediante el Uso de Tecnología, organizada por TECNALIA; GRUPO SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS, S. COOP.; AYUNTAMIENTO BILBAO; DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA. (Bizkaia Aretoa (Abandoibarra), Bilbao, 22 de noviembre)
- Impartimos Formación sobre el Modelo Cooperativo a emprendedores en la sede de TOLOSALDEA GARATZEN (Tolosa, 23 de noviembre).
- Asistencia a las reuniones de los Asesores Senior del CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI los días 2 de julio y 11 de diciembre (2 de julio en sede oficina de Laboral Kutxa en San Sebastián y el 11 de diciembre, Sede de la Cooperativa Vinícola Nuestra Señora del Campo, en Lantziego).
- Asistimos a la Jornada de Cierre Fiscal Año 2013 y Novedades Tributarias 2014, organizada por



Bultz-Lan Consulting, Consulting Pro eta Laboral Kutxak antolatu zuten (Kutxa Laboral, Eskualde Zuzendaritza, Bilbo, abenduaren 12a).

- ERMUko BEHARGINTZAn ekintzaileentzako prestakuntza kooperatiboaz 2 jardunaldi (Ermua, ekainaren 11 eta abenduaren 9a).

Halaber, ELKAR-LAN, S. COOP.eko teknikariek Euskadiko Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko Kooperatiben Federazioak (ERKIDE) antolaturiko prestakuntza edo trebatze-ikastaroetan parte hartu dute, eta gainera prestakuntza kooperatiboari buruzko hitzaldiak eman dituzte, gehienak aholkulari, sustatzaile eta teknikarien artean.

## 8.- KONTSULTEI ERANTZUTEA.

Aurtengo ekitaldian 2.682 kontsulta egin dizkigute. Zein lurraldetatik egin zaizkigun kontuan harturik, hona hemen banakatuta:

- 2.682 KONTSULTA ERANTZUNDA
  - 284 Arabatik eginak.
  - 1.181 Bizkaitik.
  - 1.158 Gipuzkoatik.
  - 59 beste lurralde batzuetatik.
- Ondorengo gai hauei buruzkoak izan dira:
  - Kooperatibei buruzko informazio orokorra.
